



**LOPEZ MENDIZABAL FUNTSAK EUSKADIKO ARTXIBO  
HISTORIKOARI DOHAINTZAN EMATEKO EKITALDIA  
ACTO DE DONACIÓN DE LOS FONDOS LOPEZ MENDIZABAL  
AL ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI**

2024-01-22 Bilbao 22-01-2024

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, herri agintari eta herri ordezkariok, Lopez Mendizabal famili kideok, jaun andreok, egun on!

Eskerrik asko, bihotzez, Lopez Mendizabal familiari zuen agiri eta dokumentuak Euskadiko Artxibo Historikoaren zaintzapean uzteagatik.

Erakunde honekiko konfiantzazko keinu bat da eta hitz ematen dizuegu gure kulturaren eta herriaren iraganaren isla den funts hau ondo gorde eta zainduko duela Artxiboak.

Gorde, zaindu eta zabaldu ere bai. Ondare hau historiagileen, ikertzaileen eta euskal gizarte osoaren eskura egongo da ezagutua eta aztertua izan dadin.

Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala: “belaunaldien arteko kulturaren transmisioa giltzarri da herri baten kultura bizitzan eta biziraupenean”. Horretan sinisten dugu.

El patrimonio cultural es aquello que un pueblo, una comunidad, ha preservado de su pasado y transmite a las generaciones futuras.

Agradecemos a la familia Lopez Mendizabal la decisión de depositar sus fondos documentales en este Archivo Histórico de Euskadi.

Nuestro compromiso es conservar y divulgar este fondo documental, testimonio y legado de vuestro abuelo Ixaka Lopez Mendizabal a nuestro Pueblo.

Testimonio y legado de un momento de postguerra, persecución, dictadura y exilio que vuestro abuelo documentó y que, a partir de ahora, servirá para un

conocimiento más profundo de una coyuntura histórica relevante para la cultura y la historia de la sociedad vasca.

Beharrezkoa dugu gure iraganaren oroitzapena eta lekukotza gordetzea, eta gure ondarea babestea eta gizarteratzea.

Hori horrela, gure Herriaren memoria bizirik mantentzeko erakusleioa da Euskadiko Artxibo Historikoa, pixkanaka osatzen eta hedatzen joan nahi duguna. Gaur Lopez Mendizabal familiaren funtsak jasotzen ditugu. Baina, azken hilabeteetan Sota eta Zavala familien, edota BBVA Banketxearen hainbat funts ere hartu ditugu.

Oso eskertuta gaude.

Euskadiko Artxibo Historikoak dokumentu-gordailu bat baino zerbait gehiago izan nahi du. Helburua da bertako Artxiboak ikerketa eta historiografiarako funtsezko tresnak izatea.

Hau da, gure historia hobeto ezagutzeko ezinbesteko lanabesak izatea.

Eskerrik asko Lopez Mendizabal familiari euskal gizarte osoaren izenean.

“Izan zirelako gara”... eskerrik asko eta egun ona izan!